PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Urdaitzeko Hobia

Urdaitzeko Hobia

Esteribarren dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Esteribar non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko hil ziren bertan.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin
eta Espainia eta Frantzia arteko muga
gurutzatzen saiatu ziren
baina ez zuen ia inork lortu.

Presoetako gehienak goiz atxilotu zituzten
baina talde txiki batzuk
Iruñeatik 50 kilometrotara dagoen
Esteribarreraino heldu ziren.

Frankistek Urdaitzen
ihes egiten saiatu ziren
3 preso atxilotu zituzten.
Bertan orduetan zehar giltzapetu zituzten
eta hurrengo egunean Kaskaxun hil zituzten.

Presoetako baten gorpua
ibaian aurkitu zuten.
Horregatik uste dute
ihes egiten saiatu zela.
Uste dute presoetako 2 Asturiasekoak zirela
eta bestea Galiziakoa.
Presoetako bat
irakaslearen etxean giltzapetu zuten.

Oraindik ez dakite nor ziren preso horiek.

Hobia Teodoro Estebani esker aurkitu zuten.
Teodorok orain 85 urte ditu
eta lehen artzaina zen.
Hobia 2018ko martxoaren 16ean desobiratu zuten.

Esteka honetan desobiratzearen
bideoa ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/urdaitzeko-hobia#landmark-video

Hemen desobiratzearen
argazkia ikus dezakezu:

